



Akelarre. Nestor Barrenetxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

# bertain

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



## Josemari Iza

Olentzaro  
etorri zaigu

1998ko abendua. 9. zenbakia. Lege gordailua: BI-85-98. 125 pezeta.

Txarriboda Arbolantxan ↻ Mountain Bike ↻ Inuzenteak ↻ eta askoz gehiago...



# idatzi digute...

## LEIOAKO AUTOBUSEN GORABEHERAK

Orain dela bi urte, Santutxu-EHU ibilbidea egiten zuen autobusen enpresa aldatu egin zen. Ordura arte, enpresa honek izaten zituen akatsak nahiko ezagunak ziren Santutxu eta inguruko unibertsitarien artean. Izan ere, puntuetan bakarrik egoten zen autobusa, eta atzerapenak eguneroko gauzak izaten ziren. Klaseak zortzi eta erdietan hasten zituen ikasle batek, adibidez, autobusa goizeko zazpietan hartu behar izaten zuen, unibertsitatera zortziak laurden gutxiagotan heldu eta beste hiru ordu laurdenez klasearen hasiera itxaron behar izateko. Honi autobusen inpuntualitatea gehitu behar zitzaion, hainbatetan berandu heltzen baitziren autobus geltokira. Honez gain, sarritan autobusak ez ziren agertu ere egiten, jendeak hurrengo ordukoa itxaron behar izaten zuen eta ondorioz, lehenengo klasea galdu. Orain dela bi urte, berriz, eta lehen aipatu bezala, enpresa berri bat izan zen ibilbidearen ardura hartu zuena: Bizkaibus enpresa. Aldaketa honekin, hainbat ikaslek unibertsitatera heltzeko zenbait erraztasun aurkitu zituzten. Autobusak, orduro izan beharrean, ordu erdiro irtetzen dira Santutxutik Leioako kanpusera eta alderantziz. Horrela, jendeak hobeto datorkiona aukera dezake ahalik eta denbora gutxien galtzeko bidaia eta klaseen hasieren artean. Santutxutik irtetzen bada ere, autobus honek Txurdinaga, Uribarri eta Begoñan ere geldialdiak egiten ditu, auzo horietako ikasleek ordura arte Santutxura hurbiltzeko zuten

beharra ekidinez. Gero eta gehiago dira Santutxu, Txurdinaga eta inguruetatik unibertsitatera igotzeko beharra duten ikasleak, eta goizeko orduetan batez ere, autobus geltokian elkartzen den jendetza kopurua nahiko zabala izaten da. Horrela, eta ikasle beharra asetu nahian, autobus zeharo haundiak bidaltzen dituzte, eta hau posible ez bazaie, autobus bi bidaltzearen kasua ere eman da. Beraz, nahiz eta zerbitzua gutziz egokia ez den, aurreko enpresak burutzen zuen lanarekin alderatuz, behintzat, ez daukat inolako zalantzarik Bizkaibusen lan hobea betetzen duela esatean.

Nagore Agirre  
EHUko ikaslea  
(Txurdinaga)


## UDALAREN EZETZA OTXARKOAGAKO EUSKAL TXOKOARI

Otxarkoagako Euskal Txokoak, auzoan euskara eta euskal kultura bultzatu asmoz, aurrerantzean egin nahi dituzten lanen egitasmo batekin batera, Auzo Etxean libre geldituko den lokal bat eskatu zuten. Udaletxean Beti Duñabeitiarekin elkarrizketatu zirenean nahiko baikor agertu baziren ere erantzuna ezezkoa izan da. Euskal Txokoa osatzen duten lagunak haserrea nabaria zen albistearen ezagutzeari. "Auzo honen egoera ikusirik duintasun apur batez zerbait egiteko bide bakarra" dela diote. Izan ere Auzo Etxean dagoen espazio handi bakarra

Berton aldizkaria  
Iturriaga 55, 1. ezk.48004 Bilbo  
berton@mail.com

da orain arte jubilatuek erabili duten lokal hau eta dituzten ideiak garatzeko aproposa iruditzen zaie. "Benetan muturreko latza eman digute oraingoan. Gu lanerako gogoz eta egitasmo serio batekin joan ginen udaletxera eta hitz politikak eskaini bazizkiguten ere erantzuna bestelakoa izan da." Erabaki hau euskararen kontra doala diote eta Auzo Etxean guztientzako lekua egonik beti batzuk izaten direla kaltetuak. "Ez dugu EAJren jarrera ulertzen, beraiek agintzen badute ere oraindik PSOErekin zorren bat duela pentsarazten digu, alde batetik euskara bultzatzearen alde agertzen da, baina zerbait egiteko garaian atzera egiten du eta beste talde batzuk, inongo oztoporik gabe nahi dutena lortzen duten bitartean gu, eskean ibilita ere esku hutsik gelditu gara." Otxarkoagako Euskal Txokoak dituen ideien artean batzuk aipatuko ditugu: Begoñako euskara ikasi eta landu, "Mentxakatorre" dorretxea berreskuratu, Begoñako ikerketa historikoa eta historia artxibategi bat sortzea, bertako toponimiaren ikerketa, inguruko euskal jaiak bultzatzea eta nola ez bertako musika(trikitixa, txalaparta, txistua...) eta dantzak... Udaletxearen lehen erantzuna txarra izan arren, Otxarkoagako Euskal Txokoa osatzen duten lagunak lanerako gogoia dutela diote eta ez dutela berehala etsiko.

Otxarkoagako Euskal Txokoa



# kolaborazioak

## Juanpa egoera oso larrian

Gotzon Ibarra



Jakingo duzue, Mahatserriko auzokidea dugun Juan Pablo detentatu zutenetik gorriak ikus arazi dizkiote. Gaur egun Valdemoroko espetxeko eritexean dago eta Santutxura bidalitako gutun batean, honako hau diosku: "Nire hankari buruz ezer gutxi esango dizut, berdin jarraitzen baitu (belaun baten ebakuntza dauka, eta bestean ebakuntza egitea behar du). Gartzelako zuzendaritzari etengabe instantziak bidaltzen ari naiz, berogailua sartzeko baimena eskatu diet, arnas makinako airea tenperatura egokian har dezadan (egunero makina bat behar du arnasa hartzeko). Baimenik ez dudanez, bi hilabete eta erdi daramatzat izugarriko kongestio eta konstipadurekin. Baimena debekatzeko arrazoiak fiktizioak dira. Eritexean bakarrik nagoenez, modulu batera eramatea nahi dut. Moduluetatik datozenek diotenez, honek lehen

gradu baten izaera guztia dauka, hau da, beti gaude itxita eta... Kideek moduluetan gutxienez askatasun gehiago dagoela esaten didate... Beraz, makina gauero erabili behar dudanez arazo berriak eta soluziorik gabekoak daude. Dena dela, instantziak betetzen jarraitzen dut, azken finean, ezin dut beste ezer ere egin".

Gertaera larri honen ondorioz, lagun talde desberdinak mobilizatzen ari dira. Bilboko udaletxean arazoa azaldu genuen, bertan, lan talde politikotako zenbait zinegotzik eta presoaren bi alabek, Juanparen askatasuna eskatu zuten. Era berean, Presoen Egoeraren Jarraipenerako Bilboko Udal Batzordeak Juanparen baldintzapeko askatasuna eskatu du Espetxe Zaintzako Epaileari, Baltasar Garzon epaileari eta Angel Yusteri bidalitako idazkian.

berton

**KOMERTZIALA BEHAR DUGU**

Interesatzen bazaizu jarri kontaktuan gurekin,  
telefono honetan:

**94 473 54 48**

**DAYTON**  
Reagge-festa  
taberna  
*Santutxuko poteo gunean*

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59


# gazi-gozoak



Hile honetan derrigorrezkoa zen Bai Euskarari gure zorionik beroena ematea. Kontseilua osatzen dugun guztion arabera, XXI. mendeko akordioari hilaren 26an ekingo zaio Euskal Herriko bost zelai nagusietan, gure hizkuntzak bere lekua izan dezan milaurteko berrian gizarteko esparru guztietan. Orain artekoa fin bete bada, beharrezko atxikimenduak lortuz, ea aurrerantzean praktikan ere fruituak ikusten zaizkion. Mahatserri mailan ere ez da gitxi egin beharreko lana, orain arte egindakoa nabarmena izan arren, askoz gehiago da egiteko dagoena-eta.



Donante izatearena primeran egon arren, autobusetan jarri dituzten karteltxoak erdaraz bakarrik agertu dira. Zer gertatzen da orduan euskaldun jendearen organuekin? besteenak bezain onak direnez, euskaraz jarri beharko lituzkete kartelak. "Yo soy donante, y tú?" Neu ere donantea naiz baina ez naiz batere identifikatuta sentitzen erdara hutsean jarriatako kartel horrekin. Beraz, euskaldun zein erdaldun jendearengana heldu nahi badute, derrigorrezko baldintza izango da euskaldunen hizkuntzan idaztea. Jar dezatela kartela euskal hiztunek ulertzeko moduan.



bertin

Hartu bertin etxean!  
egin harpidetza!

bertin Harpidetza txartela

Izen abizenak.....  
Kalea: ..... zenbakia: ..... solairua: .....  
Herria: ..... Posta kodea: .....  
Telefonoa: ..... Banku edo aurrezki kutxa: .....

Kontu zenbakia:  Entitatea  Sukurtsala  K.D.  Kontu zenbakia

11 zenbaki urtean  
 1.000 pezeta  gehiago: ..... pzta.

BETE TXARTELTXO HAU ETA BIDALDU HONA:  
**Berton aldizkaria. Iturriaga 55**  
**1.ezk.48004 Bilbo. Bizkaia**

Sinadura:

Udagoieneko putzada heze maiteak jaso bako mosu errumesak dira  
ziutateko parkeetako hosto horiztatuak  
poema erreziklatuak  
eta atso taldeek irri baldarrak,  
ilunari izua gordea

Urtzi Urrutikoetxea



## «Guk eztu itten erderarik bape, guk beti euskeraz indu»

Berton aldizkarirako elkarrizketa hau prestaten gabizela, heldu jaku Primiren eriotzaren barria.

Elkarrizketa hau, Primi eta Martin Mentxakatorre neba-arrebei, Etxezuri baserrian egindako hiru grabaketen laburpena da. Bilboko historia erdalduna dala esaten dabe askok, Mentxakatorretarren euskera bizia eta aberatsa entzun ostean, gure historia zein gitxi ezagutzen dugunaren hausnarketa jatorku berehala burura. Solasaldi honeen argitalpena izan daitela ba gure herriko pertsona apal, langile, euskeldun eta goitik beherainoko euskaltzalea izandakoari, hil osteko omenaldi txikia

☞ **E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea**

**Berton.- Zu zer zara Bilboko ala Begoñekoa?**

Primi.-Ni Begoñekoa, jaio eta ensegida zertu zen, bestiek ez, ja ezta ixen\* Begoñe.

**Berton.-Zure neba Martin askotan ikusten dogu, Txurdinagatik pasian, zu ez zara ibiltent?**

Primi.-Ni ezin naz ibili, nik holango bueltak ezin doaz, pisurik pe ezin dot eron\* ta ezebez ostantzean ein al ixen\* ezkeron noberak hobeto itten dittuz\* gauzak ez. Lehen makina bat ibilite nau, bija bi itten neuzen\* hametik Bilbora eta hiru askotan. Zenbat bier in yoten\* neu izen naz zarrena eta euki dodas atzetik zortzi, pentsaixu, eta aitte hil zanean honeik txikerrak lotu ziren eta yaten ekarri ber yakien...haik e.

**Berton.-Plazara joaten zinen?**

Primi.-Plazara eta esniekaz, beyek euki genuzen guk eta esnie salduten neuen. Baten ekar tzusten\* hortik bei bi hor egon zan ferie, ospitala dagon lekuen.

**Berton.-Non Basurton?**

Primi.-Basurton beyek eoten ziren, kortak on\* ziren hor. Eta ekar tzusten bei bi eta "seiñ gusu?" niri esan eusten ta "nik onena, nik



Etxezuri baserria

**Berton.-Non egon zan?**

Primi.-Ham en Albantxan\*.

**Berton.-Nok eroaten eban ermandadie?**

Primi.-Ba maordo moak egoten zirenak, ta kanbidxau in bezeuen\*, behiñ batzuk, behiñ beste batzuk, ba dakidxena\*.

**Berton.-Ta maordomoak zer egiten eban ba?**

Primi.-Beyek gaxorik paraten zirenean edo ba betronariyu\* ekarri, hau edo bestie edo. Gero pagau in bi zitezan\*, pagau honenbesteko bat.

**Berton.-Eta ganadue hil ezkeru?**

Primi.-Ermandadiiek abonaten dau. Guri ekarri feridxetik bei bet eta yostorrata tragau in zeuen beyek eta biotzera juan yakon yostorrata. Beye hil in zen.

**Berton.-Begoñari mahats-herri esaten eutsen, zuek mahatsik edo izan dozue?**

Primi.-Gure aitek makina bat kañe, gurdixek kargau eta makina bat burkada\* matsak eureri iminteko eron dau, zelan deko arek ixena...Zurbaran aldera, Montaña eta horrek, han txakoliñe eoten zen.

horrek mintxorrok estoaz gure" esan tzoten\*

**Berton.-Mintxorrak zer dire?**

Primi.-Beyek, esne gitxioak

**Berton.-Han egon zan ala ferie?**

Primi.-Kortak. Hor orduen tratantiek eoten ziren eta han ganadue ekarteen tratantiek kanpotik. Guk ididxek\* euki doguz be. Gerria juan zanian bakixu\* hor zuk selan kamioiak eta baztar gustidxek zertute, esan eon ezer. Ta gure aita bakixu noraño juten zan ididxek ikusten? Bitoriraño. Ze ezan lotu katxarrik ezebe, ez furgoneta bat ez kamioi bet, es ezebez, dana linpio, hicieron hemen destrozue! enorme! ta juten san Bitoridxara eta etorten san ididxekas oñez.

**Berton.-Zuek Begoñako ganadu ermandadea eta ezagutu dozue?**

Primi.-Bai ganaduen ermandadea hamen egon san, Begoñan baño ariña

**Berton.- Eta han toilerak\* eta egongo ziren ere ezta?.**

Honbre! Guk geuk izen doguz toilerak, nire gizona fabriketik urten eta joaten zan matsak gobernetan\*.


**Berton.- Eta elize non euki zenduen, Begoñan?**

Primi.-Bai Begoñen elixie, gure aitixie\* Begoñekoa zan, da han bautizau, han ezkondu eta dana. Gu danok Begoñen bautiseute gauz.

**Berton.- Justuko baseliza ere ezeutuko zendun ba?**

Primi.-Eztot ezetuko ba, ermitie politta ixen zen sano. Gerra ostien bularretako asko egon zan eta umientzako sanatorioa ieurien\* eta total sanatorio horrek ezeuen ezer durau, lastimie ixan zan horrek etsaldek\* botatie. Yustugune\* gutzako jai handie izen zen eta mezie, erromerie eta guzti ixeten zan. Guk ez dugu itxi urte baten be yoan barik.

**Berton.- Zenbat euskaldun zagoze inguru honetan?**



Mentxakatorretarren Etxezuri baserria

Primi.-Euskaldunek ba dies, len kanpoko jenderik esan bizi dana hamekoa zen, hemen danak ieuren\* euskaraz orduen ezan erderarik itten, oin askok estakidxie euskera, erdera hutsez ittin tzue, guk eztu itten erderarik bape guk beti euskeraz indu etsien da.

**Berton.- Euskerazko telebisiñue entendiduten dozue?**

Primi.-Bai hor euskeraz egoten dis askotan partiduek eta emoten deurie bai, erderazkoa emoten ba dau be bai, erderaz be bakigu te. Lengunien koñetea Algortakoa eta hamen egon gara danok eta umiek itten dau politto euskeraz, pelikula bat kontetan egon zan eta makina bat barre in geñu\* beragaz.

**Berton.-Len gerrie ere aitatu dozu, zu gazttxua izango zinen orduen ez?.**

Primi.-Nik eukiko neuazan 19 urte gerrie hasi zanean, zuloak inde ostendute\*, bonbak botaten euzen. Gernike be bakizu zelan itxi eurien abrasaute satz inde dana, horrek destrozio iyeuren hamen ezeuen itxi zutunik ezta ezebez, eskandalue isan san, hor abioi alemana eta hoiek abioiek eseuen itxi esebez, hotzikerie emoten deu. Ni baño gazteu ixen zen nebie, 18 urte in barik gerrara joan san koittedue eta kabezerako medikuri esautzan gure aitek papelen bat edo ezin lei ein?. Ez!, Yoan in be dau, geuk be yoan biu ta, esautson. Ta aitek, "nire semie yoango da baia zu ta ni ez" esautson\*.

Guk urten dun hametik eta joan gara La Arboledara, ze han apurtxu bat gitxitxau izen zan eta gure aitten lengusue lengusiñak eta zien han burdidxa hartute ganadukaz hiru behi edo hartute.

Gero etorri ziren ona asturianuek edo horrek, orduen be txarrak izen ziren, orduen denporatan. Etorri zien milizianuek eta beyek han aldatzan ibili ziren pastuen eta hartu beyek eta nebie gaztie eta kendu beyek eta eroittusen\*.

Gure aite balientie ixen zen Joan zan gure aite eta esautsien zelan beyek eroittusen eta esanotzon hau ta hau pasten yat eta kapitanak pareun konpañie, pareun batalloie, eta beyek emontsazan ensegida, ondo porta zan, orduen be danak txarrak es siren isan ba.

Lengunien andra bateri esaneutsen " Allí habrán hecho pero tanto como aquí no, cuando entraron en

Bilbao de Artxanda a Bilbao, en Artxanda había montones de chicos muertos". Honeikaz ezta isildu bear esan in bear yakie yakin deyen.

...guk itxi guzun hamen txakur bi edo, eta etor garanin txakurrek eon ziren amorratute, bakizu zegatik? ba pertsonen okelie jaurenlako\* eta nire aitzie eta nebie in tzien usike\* etzeko txakurrek eta ordun yoan biar zen ospitalera indiziñoak hartuten.


Eta gero be hor Zabalbiden edo, egon zen kartzelie kamioietan hartu eta eron Deridxora, han itteutesen\* afusileu eta mutillek edo gizonak etorten zien letxerak eta astoagaz koitteduek, eta etor zien negarrez, pasaute, eskandalue izen zen. Nik hortik ikusten dozenien honek gerrak ta horrek umiok kotteduok paraten naz ikaraute, gerrie txarra da.

### Ta zer esan gure dau...?

Indu = egin dugu  
 ezta ixen = ez da izan  
 eron = eroan, eraman  
 ein al ixen = egin ahal izan  
 itten dittuz = egiten dauz, ditu  
 bija bi itten neuzen = bidai bi egiten nebazan  
 bier in yoten = behar (lan) egin dodan  
 ekar tzusten = ekarri eustien  
 on ziren = egon ziren  
 esan tzoten = esan neutsen  
 ididxek = idiak  
 bakixu = badakizu  
 Albantxan = Arbolantxan  
 in beseuen = egin behar eben  
 dakidxenak = dakitenek  
 betronariyu = albataria  
 in bi sitesan = egin behar izaten zan  
 burkada = gurdikada  
 toilerak = dolareak, mahatsa zapaltzeko lekua  
 gobernetan = zaintzen, jagoten  
 aitixie = aitte  
 ieurien = egin eben  
 etsaldek = auzoa  
 Yustugune = Justu eguna  
 in geñu = egin genuen  
 inde ostendute = egin eta eskutatuta  
 okelie jaurenlako = okela jan ebenlako  
 in tzien usike = aginke egin eutsien  
 itteutesen = egiten ebezen



# txerri hiltzea Arbolantxako Goikoetxe baserrian



Froilan Mosquera defuntua


## Jaione Letamendia

Bertan azaldu ginenean, han aurkitu genituen Karmelo eta bere familia bazkalondoko solasaldiaz gozaten. Berehala egin ziguten lekua mahai luzean eta kafetxo bana atera ere bai. Karmelo 14 urte zituenean hasi zen matarife lanetan, orain hirurogeitik gora ditu, hortik pentsa zenbat joango ziren bere eskuetan. Orain lantegi honi utzi nahian baldin badabil ere bailara honetako baserri gehienetan ibilia da eta Pa...Yakoak ideia honekin joan zitzaizkionean, duda izpirik gabe sartu zen saltsan, norbaiti bere ofizioaren ezagutzak irakatsi nahian gainera. Izan zuen bolondresik gainera, Jon Pa...Yakidea prestatu baitzen aiztoa hartu eta bere esanetara jartzeko. Baina beharri berehala heldu baino lehen kontu kontari egon ginen. Urte guzti hauetan lan honetan aritzeak hainbat istorio

Ohitura zahar onak mantendu behar direla eta Otxarkoagako Pa...Ya taldeak aurten bere laugarren Txarriboda antolatu du. Txarribodaz gain Txerri hiltzearen inguruan sortzen den giroa ezagutu asmoz, Arbolantxako Goikoetxea baserrian elkartu ziren pasa den azaroaren 29an, domeka arratsaldez.


gordetzeko aukera eman dio Karmelori. Bizkaiko Txerriaren bertsoak elebreak badira ere, txerri txikiak gantxoa sartu orduko zelaian behera tximistaren moduan Ibarsusiko zelai bazterreko sastraka artera egin zuen lasterketaren kontuarekin ere ez genuen barre gutxi egin. Kafea eta solasaldiaren ondoren ikuilura abiatu ginen, batzuk begiratzera eta besteak Froilan Mosquerari bere azkena ematera. Izena itsusi samarra jarri bazitoten ere ez pentsa txarra egoteko arrazoirik zuenik, Goikoetxea baserrian mimo guztiaz hazia baitzen. Txerria hil ondoren, azala erre, garbitu eta barruak ateratzea gelditzen zen. Lan honek luze samar joenez arkume txuleta ba-tzuk eta ardo pixka batekin eman zitzaion amaiera arratsaldeari. Gu etxera joan ginen

eta Froilan han gelditu zen, harakinak, hurrengo zaturako Txarribo-darako noiz xerratuko zain. Abenduaren 5ean ospatu zen Txarriboda. Antolatzaileak, guztia prestatu eta porrusalda ondo goxatu zedin, goiz mugitu baziren ere, eguerdiko ordu bata eta erdiak aldera hasi zen jendea inguratzen. Ordurako Auzo Etxeko gimna-



Froilanen borreroak

sioan jantokia prest eta txosna irekita zeuden eta hirurak bitartean jendea han bilduz joan zen baxoerdi batzuekin batera. 120 bat lagun bildu zituen jaiak eta hasiera hasieratik jaigiro polita nabari zitekeen. Hirurak aldera hasi zen jendea tokiak hartzen eta berehala heldu zioten porrusaldari. Ondoren Auzo Etxe atarian piztuta zeuden bi parriletatik hasi ziren Froilan Mosqueraren zatiak mahaietan zabaltzen, odolostea, saiheskia, xerrak... Jatun onak etorri ziren eta hasieran okela mahai gainean jarri orduko ezkututzen zen baina azkenean guztiak aseta gelditu ziren. Postrea eta kopatxoaren



Froilanen hilketa lazgarria



zahar bat berritzen bada, ba, gu pozik. Poztu gaituen beste gauza bat kanpoko jendea izan da. Urte urte inguruko auzo eta herrietatik jende gehiago dator eta horrelako gauza asko egiten ez den Otxarkoaga bezalako auzo batetarako ez dago txarto."

Hauen tripetan akabatu zuen Froilan koitaduak


ondoren batzuk mahaian eserita gelditu ziren berriketan, beste batzuk berriz laster hartu zuten txosnarako bidea. Seiak inguruan Nahiko taldearekin dantzaldia hasi zen eta gaueko bederatziak arte luzatu zen giro ezin hobean. Pa..Yakoen ustez arrakatsua izan da eta auzoan horrelako giroa sortzeak datorren urtean berriro antolatzeke ilusioa ematen dietela esaten dute. "Antolaketa lanak nahiko gogorrak dira, baina hemen sortzen den giroa oso berezia da eta ondo pasatuz ohitura





# eskatu bertón zahararak...

# I N K I E S T A Zer eskatuko zenioke Olentzarori?




1. zenbakia



2. zenbakia



3. zenbakia



4. zenbakia



5. zenbakia



6. zenbakia



7. zenbakia



8. zenbakia

**Postaz:**  
Berton aldizkaria  
Iturriaga 55, 1.ezk.  
48004 Bilbo

**Telefonoz:**  
944 73 54 48

**e-postaz:**  
berton@mail.com



**I t z i a r**  
Etxebarri

« Loteria tokatzea gustatuko litzaidake, materialista naiz eta »



**T e r e s a**  
Santutxu

« Lan ziur bat eta lagun gehiago »



**J a v i**  
Txurdinaga

« Bizitza hobetzea era orokorrean »



**Y a i z a**  
Txurdinaga

« Zoriontasuna eta bizitza on bat izatea »



**M a r i a n**  
Txurdinaga

« Osasuna niretzat eta nire familiarentzat »



**M a r i s o l**  
Santutxu

« Lan hobeto bat eta diru gehiago »



**V a n e s s a**  
Txurdinaga

« Musika, arropa eta mutil eder bat »



**A m a i a**  
Santutxu

« Poztasuna, amodioa eta 3. Munduko hondamendia konpontzea »

Argazkiak: Inigo Azkona.

GURERA!

ATU

# ...debalde!!!



J O S E M A R I I Z A :

# Lelengoetan Olentzero ez zen herritarra, orain bai



Urtero moduan aurten ere Olentzero dugu gabonetako protagonista. Mahatserrian Olentzero berezia dugu hainbat urtetan Santutxuko kaleetan zehar ibiltzen dena abenduaren hogeita lauan. Txapela daraman gizon bizardun horren azpian mahatserrita dago, Jose Mari Iza hain zuzen. Hogeia bat urtez egin du Olentzarori eta oraindik ilusio handiz ikusten dute mahatserriko umetxoek, beragana hurbiltzen baitira opari guztiak haien etxera heltzeko desioarekin.

## Arrate Diez

**berton:** Zenbat urte daratatzazu Olentzarorena egiten?

Ziur ez nago, baina hogeita hiru edo hogeita lau urte gutxi gora gora behera.

**berton:** Zer sentitzen da hainbeste urtez honelako pertsonaia xelebrea izaterakoan?

Ez da ezer berezirik sentitzen, baina umetxoengan ilusioa eta poztasuna ikustea gauza polita da.

**berton:** Santutxuko zein elkartetan hartu duzu parte?

Mintza praktikako taldekidea naiz eta bizpahiru urtetik hona Olentzero eguneko antolakuntzan hartu dut parte.

**berton:** Olentzero egunak nork

prestatzen ditu?

Olentzero eguneko antolakuntzak Auzo Elkarteak egiten

«Olentzero behin Zirkular enparantzatik autobusean igo eta Santutxun jaitsi zen»

ditu, eta nik hasieran Olentzarorena besterik ez nuen egiten. Azkenengo bi urteetan Auzo Elkarteko kide moduan egun horretarako antolakuntzan aritu naiz.

**berton:** Ezberdintasun asko ikusten duzu hasierako Olentzero eguna eta oraingoaren artean?

Ezberdintasunik handiena jende aldetik dator, lehen Olentzero ez

zen herritarra eta orain herritarra da. Hasieran berrehun bat pertsonak hartzen zuen parte. Poliki-poliki jende gehiago etortzen joan da eta orain jende multzo polita biltzen da Olentzaroren inguruan.

**berton:** Zeozer berezi izan behar da Olentzero izateko?

Ez, ez dut uste, edozein izan daiteke Olentzero.

**berton:** Ume zein gaztetxoek zer eskatzen dizute?

Umeek Olentzarorengan sinesten dutenez, nahi duten guztia eskatzen didate edo baita etxeok eskatzeko esaten dietena ere. Gaztetxoek bizarretik tiratzen didate, zirikatzen ibiltzen dira ea

benetakoa den edo ez jakiteko. Txikiei entzuten saiatzen naiz, ilusio handiarekin baitatoz Olentzarorengana.

**berton:** Santutxun jende askok Olentzero izenarekin ezagutzen zaitu, ez al dizu horrek ilusiorik egiten?

Ohitura dago ni horrela deitzeko eta ilusioa egiten dit, baina orain dela hamabost bat urte ilusio oraindik handiagoa egiten zidan. Orain jende askok ezagutzen nauenez ez du horren besteko ilusiorik egiten baina pozten naiz.

**berton:** Urteko gairontzeko egunetan Olentzarorena egiten duzu, ala gabonetako kontua da bakarrik?

Gabonetako kontua da batez ere. Hasieran auzoan bakarrik egiten zen eta geroago Karmelo ikastolan ere.

**berton:** Sinesten al duzu Olentzero existitu izan dela? Nola ez dut sinestuko ba!

**berton:** Zer gomendio emango zenioke beste auzo bateko Olentzarori?

Ez dut gomendiorik ematen, nire lagun batek Orozkon egin izan du Olentzarorena eta bakoi-tzak jakingo du zelan egin, niri behintzat ez dit inork ezer ere esan.

**berton:** Hasierako Olentzero egunak

zelan ospatzen ziren?

Lehenengo Olentzero asto eta

«Idien inguruan beti jendea egon behar da, umeak karameluaen bila joaterakoan idien azpian sartzen direlako»

gurdiarekin izan zen, eta gero urtero ezberdina zen. Batzuetan asto eta gurdirik barik ere ospatu

da, eta behin ere Zirkular enparantzatik autobusean igo eta Santutxun jaitsi zen. Orain hogeia bat urtetik aurrera idiak etortzen dira urtero.

Olentzero egunean erabilitako lehen astoa ijito batzuei esker izan zen, haiek utzi baitziguten. Oraingo idiak Santutxuko talde batek baserri batetik hartzen ditu. Egundorretan goizean baserrira joaten dira, idiak prestatu eta kamioian ekartzen dituzte. Beste kamioi





## Galdera laburrak

- ✓ **Bazkari bat?**  
Bakailaoa pil-pilean
- ✓ **Euskal herriko herria?**  
Dima
- ✓ **Amets bat?**  
Espetxeko jendea etxean egotea
- ✓ **Euskal musika talde bat?**  
Pantxoa ta Peio
- ✓ **Idazle bat?**  
Gabriel Aresti
- ✓ **Liburu bat?**  
Begoña
- ✓ **Izen bat?**  
Ander
- ✓ **Mendia ala hondartza?**  
Biak



batek gurdia ekartzen du. Lehen Karmelon hasten ginen, baina aparkaleku arazo handiak egoten ziren eta pertsona batzuk aparkalekua gorde behar zuten kamioiak etortzen zire-nerako. Azkenengo hiruzpalau urtetan Basarraten aparkatzen dute eta bertatik ateratzen da Olentzaro. Idien inguruan beti jendea egon behar da, umeak karameluaen bila joaterakoan idien azpian sartzen direlako eta peligrrosoa izan daiteke.


### **berton: Zer eskatuko zenioke zuk Olentzarori?**

Mendirako bota batzuk eskatuko dizkiot, ea ondo portatzen den.

# MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Gabonetako argiak Santutxun



Abenduaren hasieran piztu zituzten Gabonetako argiak Santutxuko hainbat kaletan. Argiok, Santutxuko merkatarien elkarteak ezartzen ditu Bilboko udalak bi milioi eta erdiko laguntza ematen duelarik. Orotara, 30.000 bonbila piztuta ikusi dira Santutxun. Argiak 6tatik 10ak arte piztu dituzte egunero eta Gabon gau, Gabonzahar eta Errege eguneko gauetan 12ak arte.

## Basarrateko metro geltokian hutsunea eta alfonbra berriak

Basarrateko metro geltokian aulki batek eta zakarrontzi batek utzitako hutsunea nabaritu izan da. Hauek, Bilbotik Bartzelonara eraman dira, bertan ospatzen den erakusketa batera hain zuzen ere. Honetara, hiri bakoitzak bere trenbide sarearen elementurik adierazgarrienak eraman ditu. Erakusketa bukatzerakoan bi elementuak bere ohiko lekura bueltatuko dituzte.

### **Alfonbra berriak**

Honezaz gainera, Basarrateko metro geltokian, euria egiten duenerako ura atxikitzen duten alfonbrak jarri dira modu esperimentalean. Geltoki honetaz gain, Sarrikon ere jarri dira alfonbra berezi hauek.



## Iruzur saiakera bat detektatuta

Santutxuko auzokideek ustezko gas enpresa baten iruzur saiakera bat detektatu dute. Homologatu gabe dagoen enpresa honek, buzoiratzea egiten ohi du bere langileak gas instalakuntzak ikustera pasatuko direla iragarritz. Gainera gas errebisio ofizialak eskaintzen ohi ditu.

## Bakoitzaren etxeko autonomiari buruzko tailerra Solokoetxen

Solokoetxe ikastetxeko 30 ikasle inguru parte hartzen ari dira «autonomia personal en el hogar» izeneko tailerrean. Udaleko emakumearen zerbitzuak sustatutako tailer honek 1999ko Maiatza arte iraungo du eta burutzen deneko bigarren urtea da. Helburua, etxeko lanei bi sexuen arteko erantzunkidetasunez ekitea da; sexu bati bakarrik ez dagozkiela jakinaraziz.

## Santutxun iaz baino odol-emaile gutxiago

Ikerketa batek adierazi duenez aurten Santutxun iaz baino odol gutxiago eman da. Orain arte 640 dohaintza egin izan dira, aurreko urteetakoak baino urriago geratuz. Odol emate hauek Karmelo elizako lokaletan egiten dira eta Abenduaren 11n unitate mugikor bat bidali zuten bertaraino dohaintza jardunaldia ospatuz.



## Santutxuko merkatarien elkarteak erakuslehiorik erakargarrienak saritu ditu

Azken sei urteotan egin ohi duen bezala, Santutxuko merkatarien elkarteak erakuslehio erakargarrienak sarituko ditu.

Partehartzaileak 5 taldetan banandu dira : oihal-dendak (moda dendak, barneko arropen dendak ...), apaingarrien dendak (altzari dendak, artisautza, elektrizitatea...), opari dendak (loradenda, bitxidenda, lurrindegia...) eta beste biak geratzen diren beste komertzioen arteko compendium-a. Lehenengo bostek saria jasoko dute, horietariko hiru 50.000 pezetatakoak izango dira. Besteak, Santutxuko auzokideen aldizkarian publizitate orrialde bat eta asteburu batean merkataritza azoka batera joateko posibilitatea izango dira.

### 9.000 pezetagatik etxebizitza bat erosteko aukera galdu

Otxarkoagako familia batek ezin izan du Txurdinagan etxe bat erosi exijitutako diru-sarrerak 9.000 pezetatan gaintzeagatik. Eusko Jaurlaritzak arrazoi hau erabili du familia honi etxebizitza sozial bat erosteko egindako eskabidea ukatzeko. Aipatu beharra dago, familia honek etxez aldatu nahi duela kalerako bidea errazteko, bi kide ezindu baititu.



### Lapurto ondorengo ihesaldian istripua sufritu

Particular de Allende kalean zegoen kotxe batean lapurtzeagatik 18 urteko gazte bat atxilotu zuten. Gaztea, kotxearen jabearen lagunek harrapatu zuten ez ustean, lapurretan zegoen momentuan. Hala ere, beste kotxe batean alde egitea lortu zuen, anplifikatzaile bat eta diska konpaktuen aparailu bat lapurtu ondoren. Ihesean zebilenean, Santutxun zeuden bi kotxeekin topo egin eta kotxea bertan utzi behar izan zuen.

### Begoñako Anaiarteko sortzailetariko bati omenaldia

Begoñako Anaiarteko kide sortzailea den Prudencio Lumbreras-i omenaldia eskaini zioten Abenduaren 11an. Prudencio Lumbreras-ek Begoñako Anaiartearen domina jaso zuen fundazioaren 50. urteurrenarekin bat etorritz. Omendutakoen artean Telmo Zarra (Athletic-eko jokalaria ohia) ere bazegoen. Honi, Ohorezko anaia nagusiaren domina eman zitzaion. Gogoratu, Anaiartea 20 urtez itxita egon zela eta 1994ean berriro ere ireki zutela.

## Begoñako tanatorioaren arazoak konpondu gabe jarraitzen du

Tanatorioaren gatazka bide penalean sartu da. Enpresa sustatzaileak, kereila kriminala aurkeztu du Bilboko Udaleko gobernu komisioaren aurka, zentru funerarioa Lasa jatetxean irekitzea permititu ez duelako. Enpresak uste du udal erantzuleek

prebrikazioa egin dutela tanatorioa eraikitzeko lizentzia onartu ez dutenean. Horregatik, Ortuondo eta 9 udal delegaturentzat 10 urteko ezgaitasuna eskatu du. Honetaz gain, funerariak 1.400 milioi eskatzen ditu jasandako kalteengatik. Bestalde, gobernu kideek Ortuondori eskatu diote irtenbidea bilatzea bide penala ekiditeko asmoz. Hau honela, alkatea Lasa jatetxea erosteko prest azaldu da; 240 milioiak ordaintzeko prest dago, honetaz gain gaur egungo interesak ordainduz. Trukean, enpresak Gas enparantzan dagoen orube bat eskuratu ahal izango du balio dituen 70 milioiak ordainduz gero. Baina enpresak ez du



onartzen azken puntu hau. Ortuondoren iritziz salaketak aurrera jarraitzen badu epaiketa irabazi egingo dute. Bestetik, Begoñako auzokide elkarte (tanatorioaren aurkako 2.500 sinadura jaso ondoren), udaletxeko gobernu komisioaren alde azaldu da.

### Sutea Gabriel Aresti kalean

Pasa den Abenduan, suhiltzaileen 3 kamioik itzali behar izan zuten Gabriel Aresti kalean gertatutako sutea. Etxebizitza hutsik zegoen momentu hartan eta ez zen egon inolako zauriturik.

### Bi gazte lapurtu ondoren atxilotu



Polizia munizipalak 21 urteko gazte bat atxilotu zuen Santutxun 14 eta 15 urteko bi gazteri 5.000 pezeta lapurtzeagatik. Atxilotuak, labana batekin mehatxatu zituen eta arakatu ere.

### Gizon batek bere buruaz beste egin nahi Otxarkoagan

Otxarkoagako Txotena kalean gizon batek bere buruaz beste egin nahi izan zuen gas butanoa arnasean hartuz. Ertzaintzak, gizona konorte gabe zegoela atera eta inguruko etxebizitza batzuk desalojatu zituen.

### Istripua Zabalbide kalean

15 urteko gazte batek zuri ugari jasan zituen buruan, besoetan eta hanketan bere ziklomotoreak kotxe batekin topo egin zuenengan. Istripua Zabalbide kalean gertatu zen eta zauritua Gurutzetako eritexera eraman zuen Gurutze Gorriak.



PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!





# otxarkoagako IV. mountain-bike martxa

## 100 lagun baino gehiago aurtengo edizioan

Azaroaren bukaeran Otxarkoagan mountain-bike martxa bat egin zen. Egun eguzkitsua baina hotza atera zen goiz hartan eta txirrindulariak hamarrak pasata irten ziren ibilbidea bete asmoz. Ume, gazte eta helduek osatzen zuten tropela eta gorputzaldi paregabea azaldu zuten guztiek.

### Unai Cuevas

Makaldi mutualitateko kirol adarra den Beharlekuk antolatu zuen Azaroaren 22an burutu zen mountain-bike martxa hau. Normalean, antolakuntzatik saiatu izan dira proba hau Bizkaian egiten den azkenengo izatea. Aipatu behar da martxa honen oihartzuna ez dela bakarrik Mahatserrira mugatzen zeren eta Ismael Lejarretak ere (Marinoren anaiak) honen berri izan baitu. Honek, txirrindularitzari buruzko aldiz-

Martxa honen oihartzuna ez da bakarrik Mahatserrira mugatzen

kari bat kaleratzen du eta aurren, Otxarkoagako proba prestatzen dutenekin harremanetan jarri da. Ondorioz, urtero antolatzen den txirrindularitza proben zirkuitoaren egutegian sartu dute. Ibilbideari dagokionez, berbera izan da lau urteotan. Jendeak ondo ezagutzen du eta Beharlekuko arduradunek adierazi zigutenez « hau da txirrindulariek ibilguneaz ez kezkatzeko eta paisaiatz gozatzeko modurik apro-

posena». Bestetik, esan beharra dago ibilbideak irauten dituen 19 kilometroak oso-oso gogorrak



direla, baina era berean leku ederretatik pasatzen dela. Helmugara heldu zen lehenengo txirrindulariak ordu bat behar izan zuen 19 kilometroak betetzeko; azkenengoak, aldiz, 2 ordu eta erdi gutxi gora behera. Ibilaldi menditsu hau dela eta mountain-bikea aukeratu zuten antolatzaileek, «mendian ibiltzeko ez dago mountain-bikea bezalakorik» aitortu zuten. Hala ere, Mahatserriko eta konkretuki Txurdinaga eta Otxarkoagako errepide asfaltatuetatik ere ibili ziren martxa honetako parte-hartzaileak. Proba honetan leihak ez du garrantzirik, ahalik eta jende gehienak parte hartzeko antolatzen baita. Partaideek, 300 pezetako inskripzioa ordaintzen dute eta kamiseta bat eta jatekoa jaso.

martxa honek (ez du subentziorik jasotzen). Otxarkoagako laugarren mountain-bike martxara leku ezberdinetako jendea hurbildu zen: Mungia, Barakaldo,

Partaideek, 300 pezetako inskripzioa ordaintzen dute eta kamiseta bat eta jatekoa jaso

Bermio, Lekeitio, Galdakao, Zornotza ... beraz, Bizkaiko herri askotako txirrindulariak bildu ziren. Makaldi mutualitateko balorazio hobezina egin zuten, «oso positiboa». Agertu zuten kezketariko bat aurreko urteetan baino jende gutxiago etortzearena izan zen. Martxa honetan 100 pertona bildu ziren, eta besteetan aldiz 200 txirrindulari inguru. Honen errua

egun horietan egindako hotz eta eguraldi kaskarrari atxekitu zioten. Bestalde, aipatu beharra dago Bilbo-Bilbo txirrindularitza proba erraldoiagatik martxa atzeratu behar izan zutela. Eta honek, « eragina izan du, arinago egin izan balitz partaidetza ugariagoa izango litzateke» komentatu zuten antolatzaileek. Beharlekuren asmoa Otxarkoagako txirrindulari martxa herrikoi hau urte askotan mantentzea da. Ez dutenez kobratzen, jendeak ondo pasatzeko eta parte hartzeko antolatzen dituzte honelako ekimenak. Bukatzeko, inguruko auzoekin batu eta martxa handiago bat antolatzearen alde azaldu zirela goraiatu beharra dago. Honekin batera, euren ateak irekiak dituztela behin eta berriz errepikatu zuten Beharlekutik.









# iñuxente koittaduek

Gabonak heltzear daude eta dagoeneko zuhaitz, argi eta dekorazioz beteta ikus ditzakegu gure dendak eta kaleak.

Egunik esanguratsuenak, dudarik gabe, gabon gaua eta gabon zaharrak izaten dira, lehena Olentzerok bisita egiten duelako, eta bestea kuadrilarekin urtea hasteko jaia egiten delako. Hala ere, bi egun hauetaz gain, badago beste egun aipagarririk: errege eguna (Santutxun krossa izaten dugu), urteko lehen eguneko bazkaria (gehienak kriston ajearekin gainean) edo Inuzente eguna. Abenduaren 28a, askorentzat behintzat, lan eguna izaten da, eta hortaz, ez da jai-giro berezirik egoten, baina jendea, batzuk gutxienez, irrifarre batekin igarotzen dute eguna.

## ☞ Zuriñe Uriarte

Ohetik jeiki, dutxara sartu, nebak ur beroa kenduenez, ur hotzarekin dutxatu. Sukaldera joan, kafeari bizpahiru azukre koilarakada bota, eta ahizpak azukrearen ordeztatzea ipini duenez, kafea komunetik behera bota. Telefono dei bat jaso, enpresa batetik deitzen dutela esan, lana eskaini nahi dizutela sinistu, eta kuadrilakoaren ahotsa ezagutu duzunez, hau eskegi (telefonoa, ez laguna).


Hauk denok ezagutzen ditugun bromak dira, guztioi egin digute nozbait tankera honetako bromatxuren bat, eta gehienetan behintzat, izaten dugun lehen erreakzioa barre egitea izaten da. Izan ere, horixe izaten da txantxa hauen helburua, barrea eragitea.

Familiarteko eta lagunarteko txantxa hauetaz gain, azken urteotan irrati, telebista eta

egunkariak ere bromak egiteko ohitura hartu dute. Horrela, egunkari bateko lehen orrialdean irakurgai dagoen albiste bat, irratiari kontatzen duten anekdotaren bat edota telebistako programa batean ikus daitekeen erreportaje bat gezurretakoa izan daiteke, gu geu askotan lagunak batek txantxa zela esan arte somatzen ez badugu ere.

Horregatik, egun honetan bankuek gure dirua bertan izateagatik ematen dituzten interesak %4a igo direla entzuten baduzu, edota unibertsitateko matrikulak dohainik izango direla, izan kontutan gezurra izan daitekeela, eta ziuraski, izango dela.

Gure auzoetan ere, nola ez, urte hauetan zehar hainbat txantxa edo broma egin dira, hala nola publizitate karteletan informazio



faltsua ematea edo kale baten norabidea aldatu dutenaren seinale bat ikustea. Orain urte batzuk, zenbaitek Kaiku Dastategiko atearen parean horma bat eraiki eta bertako jabea taberna irekitzeko asmoz hurbildu zenean, atea irekitzerik ez zuela konturatu zen.

Iturriaga kalean ere, auzoan dauden zebrabideak nahikoak ez direla pentsatu, margoa hartu eta Herriko Taberna aurrean zebrabide bat pintatu zuten, kotxe bat baino gehiagok hura benetakoa zela pentsatu eta geldialdi bat eginez.

En fin, asko dira Inuzente egunean egiten diren bromak, baina onena, hauek irakurri ordez, norberak egitea edo jasotzea izaten da. Horrela ba, imaginazioa pixkat landu eta ondoan daukazuenari bromatxoren bat egin!!! Hori bai, kontuz egun horretan kontatzen dizkizuten gauzekin!!!



1998ko abendua. 9. zenbakia.

# kulturberriak

N O R A E Z E A N

## “Euskadi Gaztearen lehiaketa irabazteak ateak zabaldu dizkigu”



Noraezean taldeko kitarra jolea den Mikel Mahatseriko mutil gaztea dugu. Talde honek Euskadi Gaztearen maketa lehiaketa irabazi berri du eta hemendik aurrera bide luzea dute euskal musika munduan murgiltzeko. Noraezean taldea sei pertsonak osatzen dute, gehienak Galdakaokoak dira eta bertoko “txamizo” izeneko lokalean entsaiatzen dute beste hainbat talderekin batera.

### ☞ Arrate Diez

#### Nola sortu zen taldea?

Orain dela hiruzpalau urte entsaiatzen hasi ginen Galdakaon daukagun “txamizo” batean, hau baserri zahar bat da eta beste talde batzuekin konpartitzen dugu. Duela bi urte

lehen kontzertua eskaini genuen. Taldeko beste kide gehienak Galdakaokoak dira, Pedro kitarra jolea Basaurikoa da, baina orokorrean Galdakaoko taldea garela esaten dugu, han ematen baititugu ordu

gehienak. Nik, zehazki, kitarra erritmikoa jotzen dut.

#### Noiz izan zen zuen lehen kontzertua?

Orain dela bi urte Alde Zaharreko taberna batean jo genuen



Bilboko jaietan. Lehen Quasar izena genuen baina beste talde batek izen berbera zuenez, aldatzea erabaki genuen.

### Maketaren bat kaleratu al duzue?

Ez dugu ezer ere kaleratu, estudio batean zortzi abesti grabatu genituen eta horiek Euskal Herriko disketxetara bidali genituen. Hauen erantzuna nahiko "deprimentea" izan zen, Bakar batek erantzun zigun. Orain gauzak zeharo aldatu dira eta orain disketxeek proposamen ezberdinak egiten dizkigute, hala nola, maketa moduan grabatzea edo maxisingle bat ateratzea.

### Orain Euskadi Gaztearen maketa lehiaketa irabazi ondoren, uste duzue bideren bat zabaldu dizuetela musika munduan?

Irratiak egiten duen publizitatearekin Euskal Herrian gure izena zabaltzen dute, jende askok entzun ditu gure abestiak, eta nire ustez momentu oso aipatuean gaude. Talde asko dago oso ondo jotzen dutenak eta guk zorte ona izan dugu eta, zoritxarrez, horrelako lehiaketak irabaztea da modu bakarra zure

musika ezagutarazteko.

### Espero zenuten lehiaketa hori irabaztea?

Hasiera batetik nahiko gustura geratu ginen atera zen soinuarekin. Disketxeen erantzunak ikustean gogoak kentzen zaizkizu baina hala ere saiatu genuen. Ez genuen irabaztea espero, Euskal Herrian dauden talde guztiak aukera gutxi zegoen guztira berrehun bat talde aurkeztu baitziren.

Nire ustez, soinuak irabazi zuen, gainera lau abesti bidali genituen eta lauak nahiko ezberdinak, beraz, aukera gehiago zegoen epaimahaiaren aldetik. Bi lehiaketa ezberdin ziren, batetik, epaimahaiak erabakitzen zuena, eta bestetik, entzulegoak bozkatzeko zuena. Epaimahaiaren erabakia irabazi genuen eta entzulegoak erabakitzen zituen hamazazpi taldeen artean bigarren postua lortu genuen.

### Kontzerturen bat duzue epe laburrera?

Abenduaren 19an Idibihotz-ekin daukagu kontzertua Mungian eta 29an Def Con Dos-ekin joko dugu Kafe antzokian maketa lehiaketako sari bezala. Udarako nahiko genuke maketaren bat

edo zeozer aterata izatea.

### Zer musika mota jotzen duzue?

Saiatu gara heavy-aren ildo batetik joaten, piskat rock duro eta heavy nahastena. Kanpotar taldeen eragina dugu batez ere, Halloween adibidez, entzuten dugun musikaren islada dugu nahi ta nahiez. Baina Euskal Herrian egindako musika da eta euskaraz, noski. Hasieratik argi geneukan euskara hutsean kantatu nahi genuela.

### Kontzerturen bat eskaini duzue Mahatserrian?

Ez, duela urte bat jotzearen egon ginen baina azken momentuan ezin izan genuen jo eta gogoekin geratu ginen. Ea posible dugun hemendik lasterrera jotzea.


### Zer nahiago duzue eszenatokian jo ala tabernan jo?

Biak oso ondo daude, ambiente edo giro oso ezberdinak dira. Hobe dugu eszenatoki handi batean jo eta soinu dexente batekin. Hala ere, tabernetan ere oso giro polita sortzen da lagunak joaten baitira kontzertua ikustera.

## II. Txalaparta eguna Santutxun

Lehenengo azaroaren 26 eta 27an Santutxuko Euskal Txokoak antolatu zuen II. Txalaparta eguna. 26an, ostegunez, 60 lagun inguru batu ziren Karmelo eleizako aretoan Josu Gori txalapartajole eta adituak "Txalaparta lehen eta orain" izenpean eman zuen hitzaldira. 27an, ostiralez txalaparta festa egin zen Karmelo plazan. Bertan, Bizkaiko puntako txalapartariak jo zuten, Sestaoko Zugarramurdi taldea, Arrigorriagako kontrapas eta arrakasta berezia eduki zuen Etsak Etsi taldeak. Hauek gainera, eta tarteetan albokariak eta trikitilariak izan ziren oholtzan. Aipamen berezia merezi dute auzoko aktore gazte bik egin zuten antzezpen landua eta inpaktantea.

Auzoko kaleetan ere ez zen animaziorik falta izan, Barakaldoko Hala Dzippo musika eskolak euren tropa guztiak ekarri zituen Santutxura: albokariak, trikitilariak, txistulariak eta, jakina!, txalapartariak ere bai. Festa giro polit hartan barrikoteko sagardoak ere ipini zuen bere partea.



Barakaldoko Hala Dzippo-ko partaide bi

### Anemometroa Santutxun

21 urte ditu eta Arteakoa da. Institutu sasotik ipuingintzan-eta ibilia, Arratiako beste idazle gazte batzuekin Zantzoa fanzine literarioaren alma mater-etakoa da, eta udagoienean Susari esker kalean ikusi du Anemometroa liburua.

Anemometroa haizea neurtzeko aparailua da, baina berak dioen legez, anemometroa berezia da, barne haizeak neurtzen baititu.

Lehenengo aurkezpenaren ostean, Mahatserrira ekarri zuen Artagan kultur elkarteak, aurrera daramatzen kultur egitasmoen artean. Jende larregi ez zen bildu, dena esan behar da, baina egon ginen apurra ederto gozatu genuen poesia emanaldia. Azken aldian ohitura bihurtu den antzera, musikaria dauka Igorrek poema irakurtaldia laguntzen, anaia Borja hain zuzen ere, eta irakurtzen beste zantzoakide bat darabil, AritzZubiate igorretarra. Hiruren artean oso giro polita erdiesten dute, poema bakoitzak eskatzen duena, eta gehien iritzia labur gelditzen dela bada ere -ordu erdi pasatxo izango da-, kontuan izan behar da lar egitea okerragoa litzatekeela eta poesiarekin jendea erre eta aspertzea

### Urtzi Urrutikoetxeak

#### "Gaur ere ez du atertuko" argitaratu du


Durangoko azokarako ateratako beste lanetako bat, Mahatserritik dator. Beno, etorri, Arabatik dator, hango Foru Aldundiak argitaratu baitio Urtzi Urrutikoetxeari 1996ko Ernestina de Champourcin Poesia Sarietari dagokion liburua.

Duela urte bi saritu zuten Urtziren

"Gaur ere ez du atertuko" poema

bilduma, eta epaimahaikideen arabera, lana "irreberentia eta politikoki ez-zuzena" da. Gerora, kaleratutako lehen liburua izango zena argitaratu zion Susa argitaletxeak, "Borroka galduetatik gatoz", eta bigarren edizioa dauka gaur egun liburuak kalean.

"Gaur ere ez du atertuko" liburu ttikia da, 28 orrialdekoa, eta bigarrentzat har baliteke ere, lehenengo haren aurretik idatzia da, nahiz eta Arabako Foru Aldundiak denbora luzexea eman duen argitaratu aurretik.



### Durango: inoiz baino arrakastatsuago... eta bero

Joan da 1998ko Durangoko Euskal liburu eta Diska Azoka ere. Egutegiak hala ekarrita, Hegoaldeko jaiegunak aprobetxatuz sei egunekoa izan da aurten, baina argi ikusi da egunen luzapen hori aukeraketa bikaina izan dela, eta aurrerantzean ere ildo horri eusteko asmoa agertu dute antolatzaileek. Izatekotan, baliteke aste oso batera luzatzea Azoka. Jende aldetik ere onura ekarri du luzapenak, stand-ak ikusi eta erosteko egun gehiago izanik, sakabanatuago egon da kontua, baina ohi bezain beteta egon da azoka ordu puntetan hala ere. Urtero doanak badaki goizeko lehen orduak eta eguerdi aldean komeni dela azoka bisitatzea.

Teknologia berrien esparrua ere zabaldu egin da eta udabarritik aurrera azoka birtuala egongo omen da, hau da, Durangora joan barik unean unean eta urte osoan zehar bisitatu ahalko dira argitaletxe eta disketxeetako nobedadeak.

Aurten Durangora labetik irten berri zirenen artean, alde nabarmena da, ez baita aurreko ekitaldietan bezala besteak baino askoz gehiago saldu duen liburu edo diskarik egon. Liburuaren artean, Bernardo Atxagak berriz erakutsi du ikutzen duena urte bihurtzen duela, eta Bambulo ederto saldu da. Pako Aristiren Urregilearen Orduak eleberri mardula ere oso arrakastatsua izan da, Arantxa Urretabizkaiarena bezala.

Poesia alorrean Susak atera duen Xabier Izaga preso gasteiztarraren liburua izan da erosienetakoa. Bart irakurtzeko gaur idatzia du izenburua poema liburuak, eta Zarauzko argitaletxearen nobedadeetako bat da, Joseba Jaka Literatur Bekan saritutako Iñigo Aranbarri azpeitiarraren Harrien lauhazka eta Igor Estankona arratiar gaztearen Anemometroarekin batera




# lehiaketa mundiala

Gure auzoetan industria bere eduki dogu, bere behargin eta patriiakaz, hemengo erretratuan ikusten dozuen legez. Ta beharra bere egongo zan asko.

Gaur egunean holangorik ez dogu topako geure inguruan, baina seguruenik askok jakingo dozue hau zer zan eta non egoan.

Beraz, oraingoan ez deusuegu erantzunik emango, bastante fazila da eta. Bete beheko txarteltxua eta bidali, eta asertaten dabenetariko bateri bertoneko harpidetza bat emongo deusagu debalde.



E J O N D E I Z U L A !

NONGO BEHARGINAK ZIREN HONEEK?  
.....

Izen-abizenak: .....

Helbidea: ..... Telefonoa: .....



Mahatserriko aldizkaria Bertoko berriak, kontuak, iritziak, zeuretzat eta zeurea ere bada

**HARPIDETU!**  
**KOLABORATU!**

**GABILTZA**  
E. K. M.  
**PRENTSA BANAKETA**

**MASAJE TERAPEUTIKOA**  
L.A. CAMACHO  
411 32 20

**GOIAN S.C.L.**

**LAN BERTIKALAK**

Pintura lanak etxaurre eta patioetan Ke-irteerak eta Ur-hodiak Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**

Telefonoa:  
(94) 669 32 79  
Mugikorra:  
908- 45 16 22

bertin



# urte barri on!



# HOROSKOPOA

- Aries:** Txo, urtero gauza bera, egin gogorrarena besteen aurrean gaba batez, eta gero aste osoa ohetik mugitu ezinik, gripeak jota.
- Taurus:** Bai, Olentzero ederto portatuko da zurekin, zintzoa izan zara, eta gura dozun guztia, kontua zuk sinestea da. Gero, zer dakarren... ez kexatu!
- Gemini:** Gabon egunean intxaur saltsa, gabon zaharretan turroia, txarrien pare jan eta negarrez gerrikoaren bueltak ematen ez deusulako? Gerriko handiagoa eskatu Olentzerori.
- Cancer:** Harrapatzen bazaitu, harrapatzen bazaitu... jo ta bertan... zergatik? ni? Baina begiratu dozu zeure burua ispiluan azken aldian?
- Leo:** Xanpaina, gabon zaharretakoa, lasai zurea ez da gripea, termometroa erabili gura badozu. Hartu aspirinatxu bat eta itzi besteok pakean.
- Virgo:** Badator, badator, ez dakit tximiniatik sartuko ete jakon zure oparia. Holango fardel handia... beragaz.
- Libra:** Zuk egin gutuna, hau eskatu bestea eskatu, benetan pentsaten dozu hain zintzoa izan zareala? Tira, ondo merezita daukazu.
- Scorpius:** Zigarro horregaz gogor itxura daukazula uste dozu? Western-etako cowboy-a emoten dozu.
- Sagitarius:** Ez dakit, ba... saiatu, saiatu zara, baina hortik aurtan angulak jango dozuzala pentsatea...
- Capricornus:** Zu zoaz lasai lotara, bihar itzartukeran arbola opariz beteta egongo da. Urtean behin gox altzatzen zara.
- Aquarius:** Zelan ez dira zutaz akordako ba lagunak? Baina zeozer gura dauanak, emoten be jakin behar dau, gero! Bai, ez egon beti ispilura begira!
- Piscis:** Donostian marrazoak badagoz, Mahatserria Kenyako safaria da eta zu Tarzan zara, non itzi dozu Txita?

HIEROGLIFIKOA

Α  
**Au**  
-ngo  
Α

## Zein da zurea?

AURREKO HILEKOAREN SOLUZIOA:  
**SAN MAMESERA**

.....

### LETRA ZOPA

10 MUSIKA-TRESNAREN IZENAK.

R	U	A	I	O	F	O	X	A	S
T	S	E	P	I	A	N	O	A	L
A	E	T	E	N	I	R	A	L	K
L	O	A	R	K	O	S	I	O	I
B	T	X	I	S	T	U	A	B	T
O	M	U	T	A	Ñ	J	T	O	A
K	K	B	I	R	S	L	A	E	R
A	A	T	E	P	N	O	R	I	R
N	K	N	G	M	S	A	P	R	A
U	S	B	I	B	O	L	I	Ñ	A

bertin

**Zure publizitatea hemen**

Modulo 1 ..... 2200

Modulo 2 ..... 4400


4 modulo ..... 8800

Orrialde erdia ..... 13200

# ez zara zerura joango

Doinua: Agur sagar beltzaran (A. Duhalde/X. Amuriza)

- 1.- Lasaitua hartu dut jarriaz batera, askatu berri diren botoien antzera. Manparatik harago lehenengo aukera, txorrotaren soinura mugitzen den bera, dantza tentagarria zeinena ote da?
- 2.- Ezusteko gozoak badira tarteka, zazpigarrenekoen alaba da-eta: Dutxatik atera du bere silueta, harrera egiteko gertu baioneta, ondo itxita al dut ateko krisketa?
- 3.- Ezpainak intentzioz busti, ta behingoan, belauniko jarri da nire sutondoan. Gogoak ondo daki zer dudan gogoan, ta suziri bizia hartu du ahoan... nork esan du zerura ezin dela joan?



- 4.- Irudia agurtuz baretu dut grina, bidezidorrak ez du helmuga berdina. Bonjour bat arbeletik beti bezain fina, izter pare gozoan gonaren urdina... ametsen ataritik darion lurrina!
- 5.- Gonan gora eskuak sugeak bailira, bakarrik gaude gelan, denak joan dira. Kuleroen umela badator argira, makurtu mahai gainean ta noan harira, ilargia nireztat zabaltzen ari da.
- 6.- Joaldi bizkorretan arnasak hasperen, goitik behera dardarak hunkitu baino lehen... Komuneko paperaz garbitu ondoren, zakilak botoipean hartu du atsedean, ai ene! ta krisketa zabalik zegoen!

Iñaki Aurrekoetxea  
1998ko Kabi Goitia Bertso Paper Lehiaketako 1. Saria